



Michael Mukasey. DENNY HENRY / EFE

AEBetako Justizia idazkari Mukasey onartu du Senatua

WASHINGTON ■ AEBetako Justizia idazkari kargurako George Bush-ek egindako izendapena, Michael Mukaseyrena, ontzat jo du Senatua. Atzo egin zen bozketa; 53 boto jaso zituen alde, eta 40 kontra. Albert Gonzales-ek lagataka kargua beteko du Mukaseyk.

Iraken gatibu harturiko bederatzirandart libre laga dituzte AEBek

BAGDAD ■ Iraken preso hartuta zituena bederatzirandart libre laga zituen atzo AEBetako armadak. Bitartean, indarkeriak ez zuen etenik izan. Bakuba iparraldean usiezko lau ekintzaile eta hiru zibil hil ziren borroken ondorioz. Hego Kurdistanen ere izan zen erasoak: Kirkuk-en bonba-auto batek pertsona bat hil zuen. Irakeko militarrek jakinarazi zuten aste hasieran usiezko lau ekintzaile hil zituztela Mosulen.

Gutxienez bederatzisaharar atxilotu ditu Marokoko Poliziak

AAJUN ■ Iturri sahararrek jakinarazi dute azken egunotan gutxienez bederatzisaharar «atxilotu eta torturatu» dituela Marokoko Poliziak. HRW Human Rights Watch giza eskubideen aldeko AEBetako taldeak Mendebaldeko Sahara bisitatzean gogor zapaldu ditu manifestazioak Marokoko Poliziak.

Zentral nuklearrak egitea baimendu du Turkiako Parlamentuak

ISTANBUL ■ Turkiako Parlamentuak lege bat onartu berri du Turkian zentral nuklearrak egitea baimendu duena. Hiru zentral nuklearrak egitea da asmoa, eta 2012. urterako martxan jartzea. Modu horretan energia iturri berezkoak landu nahi dituzte legearen aldekoek. Oposizioa kontra dago, eta erakunde ekologistak ere bai.

BESTE BATASUNA >

Behin-behineko gobernua osatu dute Okzitaniako independentistek

Parisi, Erromari eta Madrilinazio historikoa onartzeko eskatu diote; EBn berezko ahotsa eduki nahi dute

JUANMA SARASOLA

Okzitaniako behin-behineko gobernuaren aurkezpenarekin Europako estatutik gabeko nazioen mahaian arreta deia egin nahi izan dute Okzitaniako sektore independentistek. Europako estatutik gabeko nazioen artean handiena da Okzitania, eta, hain justu ere, beren herrialdearen garapena eta antzeko egoeran dauden beste batzuen sustatu nahi dute Europako Batasunaren barrenean. Aste honetan egin dute beren behin-behineko kabinetearen eta errepublika proiektuaren aurkezpena, Bartzelonan (Herrialde Katalanak). Behin-behineko lehen ministro Laurenc Revestek azaldu duenez, Okzitaniako Errepublikak Federal Demokratikoa eratzea dute helburu, hizkuntza eta kultura okzitanoa babestu eta bultzatzeko, eta nazioarteko erakundeetan berezko ahotsa izateko.

Revestek eredutzat jarri du Aran harana (Lleida, Herrialde Katalanak) Kataluniako Estatu-tuaren barruan administrazio, ekonomia, gizarte eta hizkuntza alorrek kudeatzeko duen autonomia. Haren hitzetan, Aran haranaren onarpen juridiko berezia «ordain historikoko ekintza» da. «Lurrik gabeko herria ginen, eta Aran haranaren onarpen juridikoak erbestea ez den beste bide bat ikustea ahalbidetzen digu». Lleidako haran horren autonomia abiapuntu, Okzitania osorako eskubide historikoak berreskuratu nahi ditu behin-behineko gobernuak. «Batasun okzitanoak gizakien oroimenean existitzen du, bere hizkuntza eta kulturaren bidez. Nazio okzitanoa ukatzeak ia ukazio delitua adierazten du».

«Biharko Okzitaniaren argia da Aran harana. Aran haranari bote-rea ematea zeharka Frantzia eta Italiako okzitanoei laguntzea da», azaldu du Revestek.

Behin-behineko gobernuak, lehen ministroaz gain, presidentea —Miquel Aguilera— eta beste zazpi ministro ditu, tartean katalan bat, Xavier Bada, baita arlokako hainbat idazkaritza ere. Xavier Bada Justizia auzietaz eta Kataluniarako enbaxadore lanetaz ardurtuko da.

Revestek nabarmendu duenez, «errazagoa» litzateke Okzitania gobernatzen duten estatu-nazioen

■ OKZITANIA



- **Azalera:** 149.000 kilometro koadro
- **Populazioa:** 14.000.000 biztanle inguru
- **Hizkuntzak:** okzitania, frantsesa, italiara, katalana, gaztelania
- **Erligioak:** kristaua (katolikoa eta kalbinista)



Okzitaniaren Eguneko irudi bat, 2003koa. CHRISTOPHE DE PRADA SAMARITTI

aldetik ordain historikoko ekintza itxaroten jarraitzea, baina aber-tzale okzitanoek nahiago izan dute urrats ausarta egin. «Geure lotsak gaingitu behar izan ditugu, baita Okzitaniaren nagusi den mendekotasun espiritua ere, eta abentura honetan sartu gara eta argi aldarrikatzen dugu Okzitania autonomia izan daitekeela eta izan behar duela herrien Europan».

Europako azken hauteskundetan Pais Nostre, PNO Nazio Okzitanoaren Alderdia, PO Alderdi Okzitanoa ERC Esquerra Republicana de Catalunya eta UC Unitat Catalana lortutako 20.000 botoen sostengua nabarmendu du Revestek, bai-na zehaztu du beren ekimena ez dela politikoa, soziala baizik. Horiez gain, PRC Partit Republica Catala, EC Estat Catala eta ACO Elkarte Katalan-Okzitanoaren babesa dutela jakinarazi du.

HEDADURA ETA HISTORIA ZABALA. Okzitaniak arunt hedadura zabala du, ia 150.000 kilometro koadro, nahiz eta Euskal Herriko hiri bat —Baio-

tuta— eta Italiako Estatu barruraino iristen da. Halaber, egun Espainiako Estatuan, Herrialde Katalanen zati batean dagoen Aran harana ere hartzen du.

Italia ipar-mendebaldeko Piemonte eskualdeko eta Alpeetako 12 bailara —Valadas Occitanas deituak— ere barnean sartzen dira.

Halere, Frantziako *eskualde desokzitanizatuak* deituak (Peitau, Santonge eta Engolmes) Okzitaniako lurralde eta kultura definitzotik kanpo «boluntarioki bereiztuak» bezala jotzen dituzte.

Okzitaniak zazpi eskualde historiko ditu —Italiako Valadas bailarekin zortzi—, eta gehienetan okzitaniaren dialekturen bat hitz egiten dute. Gaskonia eta Guyana mendebaldean; Limousin eta Auvernia iparraldean; Dauphine eta Proventza ekialdean, eta Languedoc al hegoaldean.

Okzitania terminoa Erdi Arotik dator, 1290tik. Lehenago, 1271ean Frantziako Felipe III.ak Okzitaniako herrialdeak kontrolpean hartu zituen, Poitierseko Alfontso hil ondoren. Okzitaniara edo *lengadoc*-ek Okzitaniari egiten dio erreferentzia —*bai* esan nahi du *oc* hitzak—, eta *bai* adierazteko iparraldeko, egungo Frantzia, erabiltzen zuten oil hizkuntzarekiko ezberdina da, nahiz eta biak —baita frantsesa eta beste erromantzeak ere— latinetik eratorri.

Terminoak Frantziako Iraultza arte (1789) iraun zuen indarrean. XIX. mendean Felibrigeko literatura elkarteak berriz aldarrikatu eta bultzada eman zion, eta hainbat elkarte eta talde nazionalismoari eta kulturari bultzada berria eman zioten 1960ko hamarkadatik aurrera.

Gaur egun, okzitaniarrek soilik Aran Haranean dauka ofizialtasun estatua (katalana eta gaztelaniarekin batera), han aranesa mintzatzen baita, gaskoieraren azpidialektuetako bat.

OKZITANIERA EUSKAL HERRIAN. Okzitaniako nazionalistek Baiona ere sartu izan dute beren mapetan, Lapurdiko hiriburuan gaurdaino gaskoieraz ere hitz egiten delako eta gaskoien presentzia dagoelako.

Gaskoierarekin segituta, Euskal Herriko beste hiri eta herri batzuetan presentzia nabarmena izan zuen XX. mendea arte, besteak beste Donostia, Pasaia eta Hondarribian. Gaur egun, Hego Euskal Herrian gaskoiera bizia galdu bada ere, toponimia eta kale izen batzuk (Urgull, Morlans, Enbeltran, Narrika, Molinao, Pampinot, Jamotenea...) geratzen dira horren oroigarri.

«Nazio okzitanoa ukatzeak ia ukazio delitua adierazten du»

LAURENC REVEST
OKZITANIAR BEHIN-BEHINEKO GOBERNUKO BURUA